

**ERABAKIA,**  
**2021(e)ko urriaren 18(e)an**  
**UPV/EHUKO IRAKASLE-**  
**IKERTZAILEEN ARLOKO**  
**ERREKTOREORDEARENA,**

**2021(e)ko urriaren 1(e)an**  
**ERABAKIAREN BIDEZ DEITUTAKO**  
**LEHIAKETAN ONARTUEN ETA**  
**BAZTERTUEN BEHIN-BEHINEKO**  
**ZERRENDA ONARTZEKO DENA.**  
**AZKEN ERABAKI HORREN BIDEZ**  
**IKERTZAILEEN KONTRATUAK**  
**ESLEITZEKO LEHIAKETA EGIN ZEN,**  
**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA**  
**BERRIKUNTZAKO SISTEMA**  
**ESPAINIARREAN SARTZEKO**  
**KONTRATU MOTARI JARRAITUTA**  
**(14/2011 LEGEKO 22. ARTIKULUA)**

**RESOLUCIÓN, DE**  
**18 de octubre de 2021**  
**DEL VICERRECTOR DE PERSONAL**  
**DOCENTE E INVESTIGADOR DE LA**  
**UPV/EHU, POR LA QUE SE APRUEBA**  
**LA LISTA PROVISIONAL DE**  
**CONCURSANTES ADMITIDOS Y**  
**EXCLUIDOS DEL CONCURSO PARA**  
**LA ADJUDICACIÓN DE CONTRATOS**  
**DE PERSONAL INVESTIGADOR**  
**SEGÚN LA MODALIDAD DE**  
**CONTRATO DE ACCESO AL SISTEMA**  
**ESPAÑOL DE CIENCIA, TECNOLOGÍA**  
**E INNOVACION (ARTICULO 22 DE LA**  
**LEY 14/2011) CONVOCADO MEDIANTE**  
**RESOLUCIÓN DE**

**1 de octubre de 2021**

#### **GERTAKARIAK**

##### **Lehenengoa.-**

**2021(e)ko urriaren 1(e)an**  
erabakiaren bidez deia egin zen ikertzaileen  
kontratuak esleitzeko lehiaketa publikorako.

**Bigarrena.-** Lehiaketan parte hartzeko  
eskariak aurkezteko epea

**2021(e)ko urriaren 14(e)an**  
amaitu zen.

#### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehenengoa.-** Erabaki hau emateko honako  
arau hauek aplikatu behar dira: 39/2015  
Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio  
publikoen eta administrazio prozedura  
erkidearenak; Euskal Herriko Unibertsitateko  
errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko  
erabakia, gobernu taldearen egitura eta  
funtzionamendu arloak zehaztu eta  
eskumenak eskuordetzekoa (2021eko  
otsailaren 12ko EHAA); 6/2001 Legea,  
abenduaren 21ekoa, Unibertsitateena;  
UPV/EHUKo Gobernu Kontseiluaren 2004ko  
martxoaren 17ko erabakia, ikertzaileak  
kontratatzeko prozedura arautzen duena; eta,  
oro har, kasuari dagozkion gainerako arau  
orokor guztiak.

#### **ANTECEDENTES DE HECHO**

**Primero.-** Mediante Resolución de  
**1 de octubre de 2021**

se realizó la convocatoria de concurso público  
para la adjudicación de contratos de Personal  
Investigador.

**Segundo.-** El plazo de presentación de  
instancias en el mencionado concurso finalizó  
el día

**14 de octubre de 2021**

#### **FUNDAMENTOS DE DERECHO**

**Primero.-** Resultan de aplicación a la  
presente: La Ley 39/2015, de 1 de octubre, de  
Procedimiento Administrativo Común de las  
Administraciones Públicas; La Resolución de  
28 de enero de 2021, de la Rectora de la  
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko  
Unibertsitatea, sobre estructura y  
determinación de las áreas de funcionamiento  
del Rectorado de la Universidad y de  
delegación de competencias (BOPV de 12 de  
febrero de 2021); La Ley Orgánica 6/2001, de  
21 de diciembre, de Universidades; El  
Acuerdo del Consejo de Gobierno de la  
UPV/EHU de 17 de marzo de 2004 por el que  
se regula el Procedimiento de Contratación de  
Personal Investigador; y demás normativa de

**Bigarrena.-** Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eskuordetzeaz, erabaki hau emateko, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28eko erabakiarekin bat (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehaztu eta eskumenak eskuordetzen dituen erabakia).

**Hirugarrena.-**

### **2021(e)ko urriaren 1(e)an**

erabakiak dioenez (ikertzaileen kontratuak esleitzeko lehiaketa publikorako deia egin zuena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako sistema espainiarrean sartzeko kontratu motari jarraituta, 14/2011 Legeko 22. artikuluan adierazitako moduan), eskariak aurkezteko epea amaiturik, unibertsitateko errektoreak lehiakide onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu du Lehiaketa Ataleko eta campusetako errektoreordetzetako iragarki tauletan, horixe izanda interesatuei horren berri emateko modua. Hiru eguneko epea irekiko da, zerrenda hori argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, errakuntzak zuzentzeko, bai eta zerrenda horren kontrako erreklamazioak aurkezteko ere.

Horregatik guztiagatik, eta eman zaizkidan ahalmenak erabilita, honakoa

### **ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-** Onartzea

### **2021(e)ko urriaren 1(e)an**

erabakiaren bidez deitutako lehiaketan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda. Erabaki horren bidez ikertzaileen kontratuak esleitzeko lehiaketa egin zen, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako sistema espainiarrean sartzeko kontratu motari jarraituta (14/2011 Legeko 22. artikulua).

**Bigarrena.-** Erabaki hau argitaratzea UPV/EHUko web orrian, UPV/EHUko oholetan, eta Lehiaketa Ataleko eta campusetako errektoreordetzetako iragarki

general y concordante aplicación.

**Segundo.-** El Vicerrector de Personal Docente e Investigador es competente, por delegación, para dictar esta Resolución en virtud de lo dispuesto en la Resolución de 28 de enero de 2021, de la Rectora de la Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea, sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento del Rectorado de la Universidad y de delegación de competencias.

**Tercero.-** La Resolución de

### **1 de octubre de 2021**

por la que se realizaba la convocatoria de concurso público para la adjudicación de contratos de personal investigador según la modalidad de contrato de acceso al sistema español de Ciencia, Tecnología e Innovación (Art. 22 de la Ley 14/2011) establece que una vez finalizado el plazo de presentación de instancias el Rectorado de la Universidad hará públicas, en la Sección de Concursos y en los Vicerrectorados de Campus, la lista provisional de concursantes admitidos y excluidos que servirá de notificación a los interesados, abriéndose un plazo de tres días, a partir del día siguiente a la fecha de publicación de dicha lista, para la interposición de reclamaciones y la subsanación de errores.

Por todo lo anterior, y en uso de las facultades que me han sido conferidas,

### **RESUELVO**

**Primero.-** Aprobar la lista provisional de concursantes admitidos y excluidos del Concurso para la Adjudicación de Contratos de Personal Investigador según la modalidad de contrato de acceso al sistema español de Ciencia, Tecnología e Innovación (Art. 22 de la Ley 14/2011), publicado mediante Resolución de

### **1 de octubre de 2021**

**Segundo.-** Publicar la presente Resolución en la página Web de la UPV/EHU, en los tablones de la UPV/EHU, los tablones de anuncios de la Sección de Convocatorias y

oholetan.

Concursos y de los Vicerrectorados de Campus.

**Hirugarrena.**- Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren kontra erreklamazioak jartzeko epea, eta errakuntzak zuzentzekoa,

**2021(e)ko urriaren 19(e)tik 21(e)ra** artekoa izango da (egun biak barne).

Leioan,

**2021(e)ko urriaren 18(e)an**

**Tercero.**- Los interesados podrán presentar reclamaciones contra la referida lista provisional de concursantes admitidos y excluidos, y subsanar errores, desde el día

**19 al 21 de octubre de 2021**

ambos inclusive.

En Leioa, a

**18 de octubre de 2021**

ERREKTOREA/LA RECTORA

Izenpea eskuordetuta (Errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakia, 2021/02/12ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea / P.D. de firma (Resolución de la Rectora de 28 de enero de 2021, BOPV 12/02/2021), el Vicerrector de Personal Docente e Investigador.

Izptua.: / Fdo.: Federico Recart Barañano.